



2022KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



AUZO: KARRIKA

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2020-10-04	19:06	20.22

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Agustin Lekuona, Jon Del Olmo eta Olaia Lasa			
Herritarrak:	Euskaraz: 10		Elebitan: 0	
	Emakumezkoak: 5		Gizonezkoak: 5	
	<30 urte: 1	31-50 urte: 7	51-65 urte: 2	>66 urte:

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	Aurkezpena egin da.
2020 urtea	2021ko egoera azaldu da. Ez da galderarik egon
2021eko aurreikuspena	<p>2022ko aurrekontuak azaldu dira. Ez da galderarik egon.</p> <p>Urkabe baitako edifikazioa bertan behera botako den galdetu eta baiezkoa erantzun zaio.</p> <p>Altzibarko berpizte planean kaleen berrikuntza Klarenetik Albistur aldera gauzatuko dela zehaztu du Agustinek.</p> <p>Arkaleko bidearen inguruan galdetu da, Agustinek argitu du irailaren 24ean hastekoak zirela obrarekin, makinaria bertan dela baina ustez oraindik hasi gabeak dira. Bizilagun batek baieztatzen du bertan izan dela gaur eta hasiak direla. Bertako konponketaren %50 diputazioak ordainduko du, errepidea beraien baita, %25a poligonoak eta beste %25a udaletxeak.</p> <p>Gurutzeko bidegorria "frailen" bidetik barrena izango dela zehaztu da.</p>
Auzoa	Hirugarren argazkiko stop-ean (plazako stop-a) ez dela deus ikusten aipatzen du bizilagun batek, ispiluaren beharra ikusten da eta lehengo urtean ere aipatu

zen. Agustin udaltzainekin etorri zen eta baloratu zuten jendeak stop-a ez duela ongi egiten eta ongi eginez gero ez dela ispiluaren beharrik baloratu zen. Bidegurutze horrek bi faktore ditu, batetik ez dela ongi ikusten eta bestetik jendea oso azkar datorrela eta batxeren (resaltina) bat ongi etorriko litzake jendea ez horren azkar iristeko. Behin baino gehiagotan baloratu da batxea jartzearena, baina printzipioz ezezkoa baloratu da, izan ere seinalazioa oso markatuta dago.

Karrikako "hondartzan" zakurrak ibiltzen dira eta bertan kaka egin eta bertan uzten dute. Eskertuko litzake kartelen bat jartzea gogorarazteko kaka jaso behar dela. Bidegorrian ere aipatzen da zakur kakentzat zabor gutxi daudela eta horrek errazten duela jendeak poltsak zintzilik uztera edota ez jasotzera. Udaletxearen filosofia hondakinen inguruan, bakoitza bere hondakinez arduratzea da eta horretan egin nahi da pedagogia.

Karrikako frontoia estaltzearen proiektua eginda dagoen galdetzen dute. Argitzen da proiektua egin gabe dagoela, helburua litzake etorkizun batean auzoak aterpe bat izatea, baina oraingoz proiektua ez dago gauzatua.

Hondakinen inguruan herrian dagoen arazoa aipatzen da, kale garbiketarekin diru asko gastatzen da eta ez du diru sarrerarik ematen. Beraz, beste diru sarreretatik zati bat honetara bideratu behar da, guk zikindutako garbitzen.

Noizbait aipatu izan omen da Karrikan ekarpen gune bat jartzearena, gaur egun Altzibarrera eramaten baitute. Arazoa da non jarri gune hori, ez da leku egoki bat topatzen horretarako. Topatuz gero ez litzake inbertsio handia eta Altzibarkoa gunea ere liberatuko litzake pittin bat.

Taxibusaren zerbitzua azaltzen da, bizilagun bat ez dago ados Xorrola auzora ez iristearekin.

Elkartearen parean lizarra dago handi xamarra eta kamioiak pasatzekoan hura ez jotzeko iskinera joan behar du eta bidea zartatu da; baita aurreraxeago ere, bertan ura pilatzen da eta zartatu egin da. Konturatua da Agustin eta begiratzera joango da.

Karrikako plazaren inguruan iritzia eskatu da auzotarrei. Kotxeak aparkatuta baina egokiago ikusten da lehengo moduan. Parkea ezin bada ere mahai batzuk edota gimnasia egiteko makinak,... Auzotarrak ados daude erabilera zabal bat egokiagoa dela aparkaleku gisa baino.



2022KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,89
bilera ongi gidatu da	8,89
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8,67
Auzotar kopurua	3,89
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	6,78
Saioa probetxugarria izan al da?	8,06
Egunaren egokitasuna	8,89
Orduaren egokitasuna	8,67
Lekuaren egokitasuna	9,11